PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Igari eta Bidankoze arteko errepidea

Igari eta Bidankoze arteko errepideak
Erronkari eta Zaraitzuko haranak lotzen ditu.



Mapa honetan kolore gorrian
Erronkari eta Zaraitzuko haranak ikus ditzakezu.

Frankismoaren hasieran frankistek
haien ideia ezberdinak zituzten pertsonak
hiltzen zituzten.
Gero presoak lan publikoetan
bortxazko lanak egitera behartu zituzten.
Adibidez, errepideak, zubiak edo eraikinak egitera.
Bortxazko lanak pertsona batek
behartuta eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

Frankistek bortxazko lanak
presoak umiliatzeko eta zigortzeko,
obrak merkeagoak izateko
eta beren pentsamoldea inposatzeko erabiltzen zituzten.

Bortxazko lanak Errepublikanoei
frankismoaren Espainia Berrian
bere bizitza nolakoa izango zen erakusteko
erabiltzen zituzten ere.
Gogoratu Errepublikarrak
Gerra Zibila galdu zuten pertsonak zirela.
1939. urtetik aurrera frankistek
Igaritik hasi, Bidankoze igaro
eta Erronkariraino doan errepidea eraikitzeko
2.300 preso baino gehiago
bortxazko lana egitera behartu zituzten.

1941. urtean frankistek preso horiek
beste leku batzuetara eraman zituzten.
Preso horietako gehienak leku hauetakoak ziren:

- Asturias
- Bartzelona
- Bizkaia
- Granada
- Jaen

Errepide honetan bi memorial daude.
Memorialak pertsonek
historian gertatu den zerbait gogoratzeko
eraikitzen diren monumentu edo eraikinak dira.

Memorialetako bat
Bidankozeko muinoan dagoen monolitoa da.
Monolito bat harrizko monumentu bat da.

Hemen Bidankozeko muinoko
monolitoaren argazki bat ikus dezakezu:



Beste memoriala Igariko barrakoia da.
Barrakoi bat txabola antzeko bat da.
Bertan presoak oso egoera txarrean bizi ziren.

Hemen Igariko barrakoiaren
argazki bat ikus dezakezu:



2019. urtean Nafarroako Gobernuak
2 memorial hauek
Memoria Historikoaren Toki gisa izendatu zituen.

Esteka honetan
Igaratik Bidankozera doan
errepideari buruzko bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/es/lugar-de-memoria/carretera-de-igal-a-vidangoz#landmark-video-1